


Urria / Octubre  
2016



# BIM

Antsoain Ansoáin

AYUNTAMIENTO DE ANSOAIN  
ANTSOAINGO UDALA



**Argitaratzailea:** Antsoaingo udala. **Erredakzio Kontseilua:** Maria Olaiz, Arantxa Gamba, Marco Alvarez, Patxi Leuza. **Erredatzailea:** Imagen Gráfica. **Ale kopurua:** 4500 ale. **Doako banaketa.** **Edita:** Ayuntamiento de Ansoáin. **Consejo de Redacción:** Maria Olaiz, Arantxa Gamba, Marco Alvarez, Patxi Leuza. **Realiza:** Imagen Gráfica. **Tirada:** 4500 ejemplares. **Difusión gratuita.**

(Hurrengo aldizkaria: 2016ko abendua - Próximo BIM: diciembre 2016)



## 21 TOKIKO AGENDA / BERDINTASUN ZERBITZUA

### BARATZE EKOFEMINISTA ANTSOAINEN

Antsoaingo Udalak baratze ekofeminista bat jarrita dauka martxoaren 16tik iparraldeko erronda ondoko konpostatze-gunearen aldamenean. Ekimen honek bat egiten du Udalak pertsonen eta naturaren zaintza bere ekintzen erdigunean jartzeko duen konpromisoarekin.

Antsoaingo 15 emakume ari dira hainbat gairen inguruan bertan ikasten: lurra ekologikoki lantzen; hondakinak murrizten eta sailkatzen; birziklatzen eta konpostatzen; energia aurrezten; autokontsumoko zirkuituak, etab. Horrela, klima aldaketaren aurka ekarpena egin ahal izatea bilatzen da. Gainera, Nazio Batuen erakundeak dioen moduan, emakumeen ahalduntzearen bidez lantzen da aukera berdintasuna, eta horrek iraunkortasunaren aldeko apustua dakar gure herriarentzat, bai eta herritar guztien bizitza kalitatearentzat ere.

Udalak sustatutako proiektu honek Antsoaingo hainbat elkarteren babesa dauka: Asociación de Mujeres Dinámica de Ansoáin, Antsoaingo Cáritas, EZKABA IPko Guraso Elkartea, Nafarroako Esklerosi Anizkoitzaren Elkartea (ADEMNA) eta hipotekak kaltetutako pertsonen PAH elkartea.

Gainera, Antsoaingo beste baratze ekosozialekin lotura dauka: IP EZKABA ikastetxearen eskola-baratzea; dibertsitate funtzionala dutenen konpostatze-gune barruko udal baratzea; Harrobiren baratzea (Gaztelekua); eta Iñaki Ochoa de Olza Institutuaren baratzea.



## AGENDA LOCAL 21 / SERVICIO DE IGUALDAD

### UNA HUERTA ECOFEMINISTA EN ANSOÁIN

Desde marzo de 2016 el Ayuntamiento de Ansoáin, en su compromiso de colocar el cuidado de las

personas y la naturaleza en el centro de sus actuaciones, ha puesto en marcha una huerta ekofeminista junto al Área de Compostaje Comunitario, situada al lado de la Ronda Norte.

Allí 15 mujeres de Ansoáin están aprendiendo sobre el cultivo ecológico, la reducción y separación de residuos, el reciclaje, el compostaje, el ahorro de energía, los circuitos de autoconsumo, etc., para de esta manera contribuir a la lucha contra el cambio climático. Además, tal y como señala Naciones Unidas, a través del empoderamiento de las mujeres se trabaja la igualdad de oportunidades, lo que supone apostar por la sostenibilidad en nuestro pueblo y por la calidad de vida de toda su ciudadanía.

Este proyecto, promovido por el Ayuntamiento, cuenta con la colaboración de distintas asociaciones de Ansoáin: Asociación de Mujeres Dinámica de Ansoáin, Cáritas Ansoáin, la APYMA del CP EZKABA, la Asociación de Esclerosis Múltiple de Navarra (ADEMNA) y la Plataforma de Personas Afectadas por la Hipoteca (PAH).

Además, está vinculado a su vez con el resto de huertas ecosociales con las que contamos en Ansoáin: la huerta escolar del CP EZKABA, la huerta de diversidad funcional municipal dentro del Área de Compostaje Comunitario, la huerta de Harrobi (Casa de la Juventud) y la huerta del Instituto Iñaki Ochoa de Olza.



## HERRITARRENTZAKO INFORMAZIOA

Ohiko Osoko Bilkurak hilabete bakoitzeko azken asteazkenean egiten dira, 18:00etan, Udaleko osoko bilkuren aretoan.

## INFORMACIÓN A LA CIUDADANÍA

Las sesiones del Pleno Ordinario se celebran los últimos miércoles de mes, a las 18:00 horas, en el salón de plenos del Ayuntamiento.

## GIZARTE GAIAK

Antsoaingo Udalak **laguntza sozialen** deialdia ireki du Udalak antolatzen dituen haurren kirol eta kultur ikastaro eta jardueretarako.

**Eskaera epea irekia egonen da 2016/10/10 arte.**

Izena honako jardueretan emana duten adin txikikoen familientzat dira laguntza horiek: haurren kirol eskolak, haur eta gazteendako igeriketa ikastaro osoak, 17 urte arteko kirol jarduerak, antzerki tailerra eta euskal dantzak.

Laguntza horiek helburu dute Antsoainen zaurgarritasun egoeran egon daitezkeen adin txikikoei kirolean eta kulturaren parte hartzeko bidea zabaltzea. **Familiaren diru-sarreraren eta kide kopuruaren arabera izanen dira laguntza horiek, eta, gehienez ere, pertsonako kostuaren % 60 edota 75 € jasoko dira.**

Udalaren Erregistro Orokorrean egin behar dira eskaerak, aurreko urteko errenta aitortpena (2015ekoa) eta eskatzailearen identitatea egiaztatzeko dokumentuaren kopia erantsita.



## ASUNTOS SOCIALES

El Ayuntamiento de Ansoáin convoca **ayudas sociales** para cursos y actividades deportivas y culturales infantiles organizadas por el Ayuntamiento en 2016.

**El plazo de solicitud estará abierto hasta el próximo 10/10/2016.**

Las ayudas van dirigidas a familias con menores que hayan formalizado la inscripción en escuelas infantiles deportivas, cursillos infantiles y juveniles de natación curso completo, actividades deportivas juveniles hasta 17 años, taller de teatro y danzas vascas.

La finalidad es facilitar el acceso al deporte y la cultura a l@s menores de Ansoáin que puedan estar en situación de vulnerabilidad. **Las ayudas se otorgarán en función de la renta y número de miembros de la unidad familiar, con un tope del 60% del coste y un máximo de 75€ por persona.**

Las solicitudes deberán presentarse en el Registro General del Ayuntamiento de Ansoáin, adjuntado declaración de la renta del ejercicio anterior (2015) y copia del documento identificativo de la persona solicitante.

## EZKABA IKASTETXE PUBLIKOA

**BIZIKIDETZAN HOBEBI, HEZIKETA EMOZIONALAREN BIDETIK**

Euskara eta bizikidetzatza ditugu ardatz Ezkaba eskola publikoan. Bizikidetzari dagokionez, elkarrenganako begirunea eta errespetua sustatzeko ekimenak ditugu abian. 2016-17 ikasturte honetan, heziketa emozionala txertatu dugu Gizarte eta Hiritar Balioak izeneko arloan. Hezkuntza-prozesuak garapen emozionala sustatzea du helburu, oinarritzko osagarri gisa. Ikasleak ezagutza eta konpetentzia emozionaletan trebatzea da gakoa, bizitza pertsonal eta profesional arrakastatsua izan dezaten, eta ongi-izatea —osasunari eta bizikidetzari dagokionez— lor dezaten.



## COLEGIO PÚBLICO EZKABA

**MEJORANDO LA CONVIVENCIA POR MEDIO DE LA EDUCACIÓN EMOCIONAL**

El euskera y la convivencia son los ejes principales —si bien, no únicos— del día a día en nuestra escuela. En lo referido a la convivencia, tenemos activadas varias iniciativas encaminadas a fomentar un clima de respeto mutuo entre los alumnos/as. A partir de este curso escolar 2016-17, como novedad, hemos introducido la educación emocional en la asignatura de valores sociales y cívicos. El proceso educativo tiene como objetivo impulsar el desarrollo emocional como complemento fundamental del proceso cognitivo. La clave es enseñar a los alumnos/as el conocimiento y la competencia emocional para que puedan tener una vida personal y profesional exitosa y que consigan bienestar, tanto de salud como de convivencia.

[www.ansoain.es](http://www.ansoain.es)**Zer da?**

Gardentasuna gure Udalaren jarduketak oinarri izan behar duen funtsezko printzipioetako bat da; eta helburu du udala osatzen duten organoen kudeaketari buruzko informazioa herritarrentzat ikusgai jartzea, zorroztasunez, egiazkotasunez eta objektibotasunez.

**Zergatik?**

Herritarrak kontu publikoei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea duelako, eta kontu horiek nola kudeatzen diren jakitekoa ere bai.

**Nola?**

Gardentasun Atari honen bidez. Bertan, Udal honen kudeaketari buruzko informazio garrantzitsua eta eguneratua argitaratuko da etengabe. Atal hau diseinatu da, herritarrek Udalari buruzko informazioa erraz eskura dezaten: hitzarmenak eta kontratuak, dirulaguntzak, aurrekontuen egoera, gobernu-organoen osakerak, etab.

Sare sozialetan jarraitu



Síguenos en las redes sociales

[www.ansoain.es](http://www.ansoain.es)**¿Qué es?**

La transparencia es uno de los principios fundamentales que debe presidir la actuación de nuestro ayuntamiento. El objetivo es que los diferentes órganos que componen este ayuntamiento hagan visible a los ciudadanos la información sobre su gestión con rigor, veracidad y objetividad.

**¿Por qué?**

Porque el ciudadano tiene derecho a estar informado de los asuntos públicos y saber cómo se gestionan.

**¿Cómo?**

A través de este Portal de Transparencia en el que se publicará de forma permanente y actualizada la información relevante sobre la gestión de este Ayuntamiento. Esta sección está diseñada para que los ciudadanos puedan acceder de forma sencilla a la información, por ejemplo, sobre los convenios y contratos firmados por el ayuntamiento, las subvenciones, el estado presupuestaria, la composición de los órganos de gobierno, etc...

**UDAL EUSKARA  
ZERBITZUA**

Ikasturte berriarekin, Euskara Zerbitzua eta euskara bera inoiz baino biziago daude. Adi datozen hilabeteotako agendari eta izenemate epeei, jarduera asko martxan ditugu eta: **euskara ikastaro berriak hasi dira Antsoainen; Mintzakide euskaraz hitz egiteko programa abian da; haurren Larunblai eta gazteen Iseka programak ere bai; hainbat hitzaldi prestatzen ari gara gurasoentzat; merkatari eta ostalariekin egiteko ekintzak ere baditugu; eta gazteentzako jarduerak Harrobirekin batera.** Bestetik, elkarlanean ari gara herriko jendea, liburutegia, Kultura eta Euskara; izan ere, irakurle klubak, antzerkia, zinema eta bestelako eskaintza zabaltzen jarraituko dugu. Informazioa weborrian zabaltzen jarraituko dugu.

**SERVICIO  
DE EUSKERA MUNICIPAL**

El Servicio de Euskera y el propio euskera están más vibrantes que nunca con el inicio de este curso. Atención a la agenda y a los plazos de inscripción de los próximos meses, puesto que tenemos bastantes actividades en marcha: comenzamos con

**nuevos cursos de euskera en Ansoáin; el programa de práctica Mintzakide está calentando motores; también el programa infantil Larunblai e Iseka para jóvenes; acciones para comercio y hostelería; estamos preparando charlas para padres y madres; y actividades juveniles junto con Harrobi.** Por otro lado, la gente del pueblo, la biblioteca, Cultura y Euskera colaboramos para impulsar clubes de lectura, teatro, cine y otros tipos de oferta. Iremos ampliando la información en la web.

## IKT IKASTAROAK ANTZOAINEN

**Izen-emateak:** 012 telefonoan. Doan. Azaroaren 4 arte (IKT aurreratuko ikastaroa, azaroaren 18 arte).

### ORDENAGAILUEI BURUZKO OINARRIZKO PRESTAKUNTZA

Tokia: HARROBI gaztelekua.  
Azaroaren 7-18ra, 09:00etatik 11:30era.  
Iraupena: 25 ordu.  
• Informatika, hastapena  
• Interneteko aplikazio erabilgarriak  
• Agiri digitalen erabilera

### LANGABETUENDAKO PRESTAKUNTZA

Tokia: HARROBI gaztelekua.  
Azaroaren 7-18ra, 11:30etik 14:00etara.  
Iraupena: 25 ordu.  
• Internet, lan bilaketarako tresna eta curriculumak kudeatzeko  
• Interneten lana bilatzeko posizioa hartu, zeure marka pertsonala sortuz

### HIRUGARREN ADINEKOENDAKO PRESTAKUNTZA

Tokia: HARROBI gaztelekua.  
Azaroaren 7-18ra, 16:00etatik 18:30era.  
Iraupena: 25 ordu.  
• Hasiberriendako IKT tresnak

### IKT PRESTAKUNTZA ETE ETA AUTONOMOENDAKO

Tokia: HARROBI gaztelekua.  
Azaroaren 7-18ra, 18:30etik-21:00era.  
Iraupena: 25 ordu.  
• Web orrien eraketa WordPress-ekin  
• Orrialde profesionalen eraketa Facebook-en  
• Hodeian biltegiratzea, Dropbox eta Google Drive bidez  
• Faktura elektronikoa

### IKT PRESTAKUNTZA, AURRERATUA

Tokia: HARROBI gaztelekua.  
Azaroaren 21-25era, 16:00-21:00etara.  
Iraupena: 25 ordu.  
• Argazki albuma  
• Aurkezpenak Preziarekin  
• Sakelakoetan gehien erabiltzen diren aplikazioak

Antolatzaile: Nafarroako Gobernuak  
Laguntzaile: Ayuntamiento de Ansoáin  
Emaila: Fundación DÉDALO

## CURSOS TIC EN ANSOÁIN

**Inscripciones:** en el Telf. 012 son **GRATUITOS**. Hasta el día 4 de noviembre (excepto el curso TIC avanzado 18 de noviembre).

### FORMACIÓN BÁSICA DE ORDENADOR

Lugar: Centro juvenil HARROBI  
Del 7 al 18 de noviembre de 09:00 a 11:30  
Duración: 25 h  
• Inicio a la informática  
• Aplicaciones útiles de Internet  
• Uso de certificados digitales

### FORMACIÓN PARA PERSONAS EN DESEMPLEO

Lugar: Centro juvenil HARROBI  
Del 7 al 18 de noviembre de 11:30 a 14:00  
Duración: 25 h  
• Manejo de Internet para búsqueda de empleo y gestión de curriculum  
• Posiciónate en Internet para buscar empleo creando tu marca personal

### FORMACIÓN PARA PERSONAS DE LA TERCERA EDAD

Lugar: Centro juvenil HARROBI  
Del 7 al 18 de noviembre de 16:00 a 18:30  
Duración: 25 h  
• Herramientas para principiantes TIC

### FORMACIÓN TIC PARA PYMES Y AUTÓNOMOS

Lugar: Centro juvenil HARROBI  
Del 7 al 18 de noviembre de 18:30 a 21:00  
Duración: 25 h  
• Creación de páginas web con WordPress  
• Creación de una página profesional en Facebook  
• Almacenamiento en la nube con Dropbox y Google Drive  
• Factura electrónica

### FORMACIÓN TIC AVANZADA

Lugar: Centro juvenil HARROBI  
Del 21 al 25 de noviembre de 16:00 a 21:00  
Duración: 25 h  
• Álbum de fotos  
• Presentaciones con Prezi  
• Manejo de las aplicaciones para dispositivos móviles más utilizados

Organiza: Gobierno de Navarra  
Colabora: Ayuntamiento de Ansoáin  
Imparte: Fundación DÉDALO

## ANTSOAINGO UDAL MUSIKA ESKOLA

### MUSIKAREKIN IKASI ETA GOZATU

Antsoaingo Musika Eskolako ikasleria herriko jaietan.

Bandak eta saxofoi taldeak Antsoaingo Egunean parte hartu zuten; eta gure jaietako ostiralean, 16an, musika modernoko konboak hasierako talde moduan igo ziren agertokira Kaoba Orkestraren aurretik.

**Zorionak neska-mutilak!!!**



## ESCUELA DE MÚSICA MUNICIPAL DE ANSOÁIN

### APRENDE Y DISFRUTA CON LA MÚSICA

Alumnado de la Escuela de Música de Ansoáin en las fiestas de la localidad.

La banda y el ensamble de saxofones participó en el día de Ansoáin, y los combos de música moderna se subieron al escenario siendo teloneros de la orquesta Kaoba el viernes 16 en nuestras fiestas.

**¡¡¡Enhorabuena chavales!!!**



## Agenda

7

TEATRO  
MÚSICA  
DANZAANTZERRI  
MUSIKA  
DANTZAVenta Anticipada  
Aldez Aurreko  
Salmenta: 8,00 €Venta en Taquilla  
Salmenta  
Leihatilan: 10,00 €

VIERNES OSTIRALA



"ÉRASE UNA VOZ"

EDITH PIAF TRIO  
(Navarra / Nafarroa)

80 min.

Teatro Ansoáin · 20:00 h.  
Antsoingo Antzokia  
20:00etanEDITH PIAF TRIO: Ysi Kalima (voz /ahotsa), Jorge París  
(acordeón / akordeoia), Luis Notario (Pianoa). LAFOULE ENSEMBLE, músicos colaboradores/laguntzaileak. ASUN ABAD, actriz /antzezlea.  
COMPañÍA DÍNAMO DANZA, bailarines /dantzariak

Mômone, hermana de Edith y testigo de su azarosa vida, será la maestra de ceremonias de este espectáculo y nos hará conocer mejor la personalidad de esta gran mujer. Un recorrido musical acompañado de la narración de los acontecimientos más relevantes de su emocionante vida y algunos de los personajes que le acompañaron.

Mômone Edith-en ahizpa izan zen eta bere bizitza gorabeheratsuaren lekukoa. Bera izanen da espektakulu honen zeremonia-maistra eta emakume handi honen izaera hobeki ezagutzen lagunduko diguna. Ibilbide musikarekin batera, Edithen bizitzako gertakari garrantzitsuenen kontakizuna entzuten dugu, eta ondoan izan zituen pertsonaia batzuei buruz ere jakinen dugu.

JUVENIL — ADULTO  
GAZTE ETA  
HELDUENTZAT

8

SÁBADO LARUNBATA



ANTSOAINEN KANTUZ

Plaza Lapurbide · 12:00 h.  
Lapurbide plazatik · 12:00etan

Antsoainen Kantuz desea ampliar el grupo. Por eso motivo invita a toda persona que quiera participar con el grupo. Los ensayos son los jueves a las 19:30 en el Centro Cívico de Ansoáin.

Antsoainen Kantuz jende bila dabil. Hori dela eta, taldea zabalik dago hartan parte hartu nahi duen jende guztientzat. Entseguak ostegunetan egiten dira, 19:30ean, Antsoingo Gizarte Etxean.

FAMILIAR  
FAMILIARENTZAT

21

DOCUMENTAL  
COLOQUIO CON  
JON ABRILDOCUMENTAL  
SOLASALDIA JON  
ABRILEKIN

VIERNES OSTIRALA



"NESKATOAK"

(Vera De Bidasoa / Bera)

60 min.

Teatro Ansoáin · 20:00 h.  
Antsoingo Antzokia  
20:00etan

El documental cuenta la experiencia de las mujeres que se marcharon entre 1940 y 1970 a trabajar como criadas a Ipar Euskal Herria y Francia. En la mayoría de los casos, se trataba de adolescentes y chicas jóvenes, que dejaron detrás a sus familias, en busca de una mejor vida. Sobre todo, trabajaron en casas de gente adinerada como internas, y en hoteles y restaurantes como sirvientas y cocineras. Trabajaron en muy duras condiciones, con jornadas de entre 12 y 14 horas; muchas veces, sin contrato; y muchas de ellas tuvieron que pasar la frontera a escondidas, porque no tenían pasaporte.

1940 eta 1975 urteen artean emakume aunitzek beren etxea utzi eta Ipar Euskal Herrira zein Frantziako bertze hainbat tokitara joan behar izan zuten neskame edo neskato lanetan aritzera. Emakume horiek, nerabe eta neska gazteak, familia utzi zuten giblean. Maiz, mendiz joan ziren, gordeka. Hotel eta jatetxeetan aritu ziren zerbitzari eta sukaldari, baita dirudunen etxeetan ere, "interna" moduan. 12 edo 14 orduko lanaldiak egiten zituzten, aunitzetan kontraturik gabe, pasaportetik gabe, lanerako baimenik gabe, eta frantsesez jakin gabe.

Director/Zuzendaria: Jon Abril

TODOS LOS  
PÚBLICOS  
JENDE  
GUZTIENTZAT

SUBVENCIONA/DIRUEMAILEA:

ENTRADA LIBRE  
SARRERA DOAN

23

DANZA HIP-HOP  
HIP-HOP DANZAVenta Anticipada  
Aldez Aurreko  
Salmenta: 5,00 €Venta en Taquilla  
Salmenta  
Leihatilan: 6,00 €

DOMINGO IGANDEA



## "BREAKING ICE"

ESPECTACULOS TIC TAK  
(Navarra / Nafarroa)

60 min.

Teatro Ansoáin · 18:00 h.  
Antsoingo Antzokia  
18:00etan

Compuesto por las jóvenes: Ainara, Elena Navarro y Alicia Navarro. Llevan desde los 5 años bailando juntas hip hop, les encanta bailar y por eso decidieron presentarse al concurso de televisión de Disney Channel, tras varias semifinales y entre más de 8000 participantes de todo España fueron **las ganadoras del concurso de shake it up**, vamos a bailar! Desde ese momento, no han parado de cosechar éxitos. Su talento innato para el baile y su natural desparramo han provocado que sientan el cariño de todos sus seguidores allá donde van.

Kideak: Ainara Peralta, Elena Navarro eta Alicia Navarro. 5 urte zutenetik ari dira elkarrekin hip-hopean, dantzatzea maite dute, eta horrexegatik erabaki zuten Disney Channel telebistako lehiaketan aurkeztea. Hainbat finalaurrekotan aritu ondoren eta, Espainia guztiko 8.000tik gora parte-hartzaileen artean, **shake it up, vamos a bailar!** lehiaketa irabazi zuten. Une horretatik aurrera, haien ibilbidea guztiz arrakastatsua izan da. Berezkoa dute dantzarako talentua, berezkoa etorria; hori dela eta, non aritzen diren dantzan, hango jendearen maitasuna jasotzen dute.

TODOS LOS  
PÚBLICOSJENDE  
GUZTIARENENTZAT

26

CUENTA CUENTOS  
(en euskera)IPUIN-HONTALARIA  
(euskaraz)ENTRADA LIBRE  
SARRERA DOAN

MIÉRCOLES ASTEAZKENA

## "HIRIETAKO IPUINAK"

BIRJIÑE ALBIRA

Biblioteca

17:30 De 3 a 5 años

18:15 De 6 a 12 años

Liburutegia

17:30ean, 3 eta 5 urte bitartekoentzat

18:15ean, 6 eta 12 urte bitartekoentzat

28

CONCIERTO  
BENÉFICO A  
FAVOR DE VÍCTOR  
AYALAONGINTZAKO  
HONTZERTUA  
VÍCTOR AYALAREN  
ALDEPrecio Prezioa:  
5,00 €

VIERNES OSTIRALA

"A QUEMARROPA" y  
"HARD ACOUSTIC  
BAND"

(Ansoáin / Antsoain)

120 min.

Teatro Ansoáin · 20:00 h.  
Antsoingo Antzokia  
20:00etan

Con el fin de recaudar fondos para el niño vecino de Ansoáin Víctor Ayala, que padece la enfermedad Síndrome de Fires, y que va a recibir un tratamiento costoso para su familia, celebramos este concierto benéfico con las actuaciones de los grupos A QUEMARROPA y HARD ACOUSTIC BAND.

Victor Ayala haur antsoaindarrak fires sindromea izeneko gaixotasuna du, eta tratamendua izugarria garestia da. Hori dela eta, ongintzako kontzertu hau antolatuta da, A QUEMARROPA eta HARD ACOUSTIC BAND taldeekin. Dirua haurarentzat izanen da.

JUVENIL — ADULTO

GAZTE ETA  
HELDUENENTZAT

# Agenda

30

CINE INFANTIL  
HAURRENTZAKO  
ZINEMAPrecio Prezioa:  
3,80 €

DOMINGO IGANDEA



## "LOS CROODS. Una aventura prehistórica"

90 min.

Teatro Ansoáin - 18:00 h.  
Antsoaingo Antzokia  
18:00etan

Prehistoria. Tras la destrucción de su hogar por un gran terremoto, Grug se ve obligado a emigrar con su familia. Mientras avanzan por un mundo desconocido y aterrador, se encuentran con un nómada de mente abierta que los deja a todos fascinados, sobre todo a la hija de Grug.

Historiaurrea. Lurrikara bortitz batek bere etxea txikitu ondoren, Grug-ek bere familiarekin emigratu beharra izan zuen. Mundu ezezagun bezain beldurgarri batean zebiltzala, buru-irekiko nomada bat aurkitu zuten; denak txundituta utzi zituen, baina, batez ere, Grugen alaba.

Director/Zuzendaria: Kirk de Micco, Chris Sanders

TODOS LOS  
PUBLICOSJENDE  
GUZTIARENTZAT

## VENTA DE ENTRADAS ■ SARREREN SALMENTA

**TAQUILLA DEL TEATRO.** Desde una hora y media antes del comienzo de cada espectáculo ■ **ANTZOKIKO LEIHATILAN.** Ikuskizunaren hasiera baino ordu eta erdi lehenago hasita.

**TELEFONO 012 (Desde fuera de Navarra 948 012 012).** Las entradas se recogen en la taquilla del teatro desde una hora y media antes del comienzo de cada espectáculo ■ **012 TELEFONOAN (Nafarroatik kanpo 948 012 012).** Sarrerak hartzen dira ikuskizun bakoitzaren hasiera baino ordu eta erdi lehenago hasita.

**INTERNET • [www.teatroansoain.es](http://www.teatroansoain.es) VENTA DE ENTRADAS.** Con el justificante de compra por internet pasa directamente a la sala ■ **INTERNET • [www.teatroansoain.es](http://www.teatroansoain.es) SARREREN SALMENTA.** Internet bidez egindako erosketaren egiaztagiria ekartzen baduzu, zuzenean aretora pasa zaitez.



## DANTZAN IHASI NAHI AL DUZU? 18 URTE BAINO GEHIAGO AL DUZU? ¿TIENES MÁS DE 18 AÑOS? ¿QUIERES APRENDER A BAILAR?

¿Has observado que cada vez hay más gente, y no solo dantzaris, bailando músicas tradicionales? Ahora tienes una ocasión perfecta para aprender o practicar danzas de nuestro patrimonio cultural. ¡Ánimate y ven a bailar con nosotros!

Ohartu zara gero eta jende gehiago euskal dantzak dantzatzen dabilela? Ez duzu zertan dantzaria izan behar, orain duzu aukera dantzak ikasi eta praktikatzeko. Anima zaitez eta etorri gurekin dantza egitera!

Grupo de Danzas EGUZKI EKER Dantza Taldea: [nagusia56@gmail.com](mailto:nagusia56@gmail.com) - Tf. 658 509 946